

**HOMEDALE, ID-SALT LAKE CITY UT**  
**IGANDEA EKAINAK 27/ SUNDAY JUNE 27**  
**URTEAN ZEHAR XIII-N IGANDEA/XIII SUNDAY IN ORDINARY TIME (B)**  
**MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

**HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG**

Kanta dezagun denok	Let us all sing
<b>Kanta dezagun denok, kanta egun alaia, Kristo piztu da-eta, kanta aleluia.</b>	<b>Let us all sing, sing a joyful song, Christ in Risen, sing Alleluia.</b>
Poztu famili, poztu gurasoak poztu biziak, poztu hildakoak	Families, exult, parents exult, Exult the living, exult the death also.
Poztu herriak, poztu herritarrak; Poztu eliza, poztu eliztarrak.	Exult all cities and the citizens, Exult the church, and all the churchgoers.

**HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES**

<p>† Aitarean, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.            ◎ Amen.  <b>AGURRA</b>            †Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitarean maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.            ◎ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit.            ◎ Amen.  <b>Greeting</b>            †The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all.            ◎ <b>And with your spirit.</b></p>
---	--

**DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE**

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.</p> <p>†Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.            ◎ Erruki, Jauna.</p> <p>†Jesus Jauna, bekatarietako egitera etorria: Kristo, erruki.            ◎ Kristo, erruki.</p> <p>†Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitarean eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.            ◎ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguelako Jainko guztiz ahaltzua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.            ◎ Amen.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters), let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>†You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.            ◎ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>†You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.            ◎ <b>Christ, have mercy.</b></p> <p>†You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.            ◎ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>†May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.            ◎ <b>Amen.</b></p>
---	--

## **AINTZA ZERUETAN/GLORY**

Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme:

Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.

Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.

## **MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER**

† Egin dezagun otoitz

Jainko Jauna, zure semetzat hartuz, argiaren ume egin gaituzu: egizu, gezurraren ilunbeak ez gaitzala ingura, baina egon gaitzela beti zure egiaren argi ederrean  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Errege bizi bait da, gizaldi eta gizaldietan.

☉ Amen.

† Let us Pray

O God, who through the grace of adoption chose us to be children of light, grant, we pray, that we may not be wrapped in the darkness of error but always be seen to stand in the bright light of truth.

Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever.

☉ Amen.

## **HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD**

### **LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING**

**Jakinduriaren Liburua/ Wis 1:13-15; 2:23-24**

#### **Jakinduriaren Liburutik**

**13** Jakin, ez duela Jainkoak heriotza egin, bizidunak galtzea ez duela atsegin. **14** Izan eta irauteko egin ditu hark gauza guztiak; munduko izakiak osasunez beteak daude, ez dute beren baitan pozoi hilgarririk eta Herioak ere ez du munduan aginterik, **15** hilezkorra baita zuzentasuna. **2,23** Hilezkor izateko egin zuen Jainkoak gizakia, bere izatearen irudira egin zuen; **24** baina deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan, eta harenak direnek jasango dute.

☐ Jaunak esana!

#### **From the Book of Wisdom**

God did not make death, nor does he rejoice in the destruction of the living. For he fashioned all things that they might have being; and the creatures of the world are wholesome, and there is not a destructive drug among them nor any domain of the netherworld on earth, for justice is undying. For God formed man to be imperishable; the image of his own nature he made him. But by the envy of the devil, death entered the world, and they who belong to his company experience it.

☐ The Word of the Lord!

☉ Eskerrak Jainkoari!

☉ Thanks be to God!

### ERANTZUN-SALMOA/Psalm 30:2,4,5-6, 11, 12, 13;

**R/. Goratua zu, Jauna, onik atera bainazu!**

Goratua zu, Jauna, onik atera bainazu!  
Nire etsaiei ez diezu nire lepotik pozten utzi.  
Jauna, Herio Leizetik atera nauzu;  
hilobira jaistear nengoela, biziberritu. **R/.**

Kanta Jaunari, haren fededunok,  
goretsazue, santua dela gogoratuz.  
Haren haserrea une baterako,  
haren onginahia bizi guztirako.  
Arratsean negarrez bagaude ere,  
goizean berriro poz-oihuz. **R/.**

Entzun, Jauna! Erruki nitaz!  
Jauna, zatozkit lagun!»  
Negarra dantza bihurtu didazu.  
Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti.  
**R/.**

**R. I will praise you, Lord, for you have rescued me.**

I will extol you, O LORD, for you drew me clear  
and did not let my enemies rejoice over me.  
O LORD, you brought me up from the netherworld;  
you preserved me from among those going down into  
the pit. **R.**

Sing praise to the LORD, you his faithful ones,  
and give thanks to his holy name.  
For his anger lasts but a moment;  
a lifetime, his good will.  
At nightfall, weeping enters in,  
but with the dawn, rejoicing. **R.**

Hear, O LORD, and have pity on me;  
O LORD, be my helper.  
You changed my mourning into dancing;  
O LORD, my God, forever will I give you thanks. **R.**

### BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

Korintoarrei Bigarren eskutitza/ 2 Cor 8:7,9,13-15

**San Pablu Apostoluak Korintoarrei Bigarren Eskutitzetik**

Senideok:

**7** Gauza guztietan aberats zarete: sinesmenean, hitz egiteko gaitasunean, jakintzan, denetarako arduraren eta nireganako maitasunean; izan zaitezte aberats eskuzabaltasunean ere.

**9** Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko.

**13** Arazoa ez da besteak lasai egiteko zuek larri gertatzea, guztien berdintasuna bilatzea baizik. **14** Une honetan, zuek sobera duzuenak haien eskasia konponduko du, eta egunen batean haien ugaritasunak zuen eskasia. Honela, berdintasuna izango da nagusi, **15** Liburu Santuak dioen bezala: *Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ezta gutxi bildu zuenak ere eskas.*

☐ **Jaunak esana!**

**From the Second Letter of Saint Paul to the Corinthians**

Brothers and sisters:

As you excel in every respect, in faith, discourse, knowledge, all earnestness, and in the love we have for you, may you excel in this gracious act also. For you know the gracious act of our Lord Jesus Christ, that though he was rich, for your sake he became poor, so that by his poverty you might become rich. Not that others should have relief while you are burdened, but that as a matter of equality your abundance at the present time should supply their needs, so that their abundance may also supply your needs, that there may be equality. As it is written: *Whoever had much did not have more, and whoever had little did not have less.*

☉ Eskerrak Jainkoari!

☐ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

### **ALELUIA-ALLELUIA**

**R. Aleluia, alleluia.**

Kristo Jesus gure Salbatzaileak heriotza ezereztu du eta bizia zabaldu zuen berri onaren bidez.

**R. Aleluia, aleluia.**

**R. Alleluia, alleluia.**

Our Savior Jesus Christ destroyed death and brought life to light through the Gospel.

**R. Alleluia, alleluia.**

### **EBANJELIOA-GOSPEL**

† **Jauna zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik**

☉ Aintza Zuri, Jauna.

† **Jaunak esana.**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you

☉ **And with your spirit**

† A Reading from the Holy Gospel according to **N**

☉ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

### **Ebanjelioa San Markosen Liburutik/ Mk 5:21-43**

**21** Jesus aintziraren beste bazterrera itzuli zenean, jendetalde handia bildu zitzaion ondora. Oraindik aintzira ondoan zegoela, **22** sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, **23** otoi eta arren eskatzen zion: «Alaba hilzorian dut; zatoz hari eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». **24** Harekin abiatu zen Jesus. Jende asko zihoakion ondoren, estuka eta bultzaka. **25** Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odoljarioz zegoena. **26** Hamaika sendagileren eskutan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. **27** Jesusi buruz esaten zena entzunik, jendartean atzetik joan eta jantzia ukitu zion. **28** Honela baitzioen berekiko: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». **29** Une berean odoljarioa gelditu egin zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. **30** Berehala antzeman zion Jesusek bere baitatik halako indar bat atera zitzaiola eta, jendartean itzulirik, galdetu zuen: –Nork ukitu dit jantzia? **31** Bere ikasleek erantzun zioten: –Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu? **32** Baina Jesus ingurura begira zegoen, nork egin ote zion hori.

When Jesus had crossed again in the boat to the other side, a large crowd gathered around him, and he stayed close to the sea. One of the synagogue officials, named Jairus, came forward. Seeing him he fell at his feet and pleaded earnestly with him, saying, “My daughter is at the point of death. Please, come lay your hands on her that she may get well and live.” He went off with him, and a large crowd followed him and pressed upon him. There was a woman afflicted with hemorrhages for twelve years. She had suffered greatly at the hands of many doctors and had spent all that she had. Yet she was not helped but only grew worse. She had heard about Jesus and came up behind him in the crowd and touched his cloak. She said, “If I but touch his clothes, I shall be cured.” Immediately her flow of blood dried up. She felt in her body that she was healed of her affliction. Jesus, aware at once that power had gone out from him, turned around in the crowd and asked, “Who has touched my clothes?” But his disciples said to Jesus, “You see how the crowd is pressing upon you, and yet you ask, ‘Who touched me?’” And he looked around to see who had done it. The woman, realizing what had happened to her, approached in fear and

33 Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ondo baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. 34 Jesus honela mintzatu zitzaion: «Ene alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza». 35 Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esatera: «Hil zaizu alaba. Zertarako eman neke gehiago Maisuari?» 36 Baina Jesusek, hitz hauei kasurik egin gabe, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez izan beldurrik; zuk sinetsi». 37 Ez zion inori ere berarekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan ezik. 38 Sinagogako buruzagiaren etxera heltzean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. 39 Sartu eta esan zien: «Zer dela eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago». 40 Haiek barre egiten zioten. Baina Jesusek guztiak kanpora bidali zituen eta, neskaren aita-amak eta berarekin etorriak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. 41 Eskutik heldu eta esan zion: «Talitha kum» (hau da: «Neskak, zuri diotsut: Jaiki zaitez»). 42 Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. 43 Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

trembling. She fell down before Jesus and told him the whole truth. He said to her, “Daughter, your faith has saved you. Go in peace and be cured of your affliction.” While he was still speaking, people from the synagogue official’s house arrived and said, “Your daughter has died; why trouble the teacher any longer?” Disregarding the message that was reported, Jesus said to the synagogue official, “Do not be afraid; just have faith.” He did not allow anyone to accompany him inside except Peter, James, and John, the brother of James. When they arrived at the house of the synagogue official, he caught sight of a commotion, people weeping and wailing loudly. So he went in and said to them, “Why this commotion and weeping? The child is not dead but asleep.” And they ridiculed him. Then he put them all out. He took along the child’s father and mother and those who were with him and entered the room where the child was. He took the child by the hand and said to her, “Talitha kum,” which means, “Little girl, I say to you, arise!” The girl, a child of twelve, arose immediately and walked around. At that they were utterly astounded. He gave strict orders that no one should know this and said that she should be given something to eat.

† **Jaunak esana.**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

## HOMILIA-HOMILY

### SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

#### APOSTOLUEN AITORMENA

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

† **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna,** zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ **Sinisten dut, Sinisten dut!**

#### APOSTLES' CREED

† **I believe in God, the Father almighty,**

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ Amen.

☉ Amen.

☉ Sinisten dut, Sinisten dut!

## JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

† Brothers and Sisters: moved by the power of the Holy Spirit let us pray to God who is rich in mercy:

1. For the Church: May the Church be a witness of God's Love in this world, where lack of faith seems to reign. **We pray to the Lord.**
2. For all those who carry the decision-making responsibilities in the world, that they may look at the well-being of the most in need. **We pray to the Lord.**
3. For those in serious financial difficulties, and the ones living in loneliness; that they may find consolation. **We pray to the Lord.**
4. For us who live too tied up to material things: that we may be able to deepen in the experience of God's love to each one of us. **We pray to the Lord.**
5. We pray for all those who are sick, that they recover and re-gain their health. We pray also for all members who are working on the front line during this pandemic. Keep them and their families safe and healthy. **We pray to the Lord.**
6. We pray for everyone who has lost their job, who has died, or has been negatively affected by the pandemic in our world. **We pray to the Lord.**
7. For all of us here, Basques of **Homedale** and **Utah** and friends from other parts of the country, celebrating our yearly picnic feast; that while using the things of this world, we may aspire also at the things in heaven. We pray to the Lord.
8. For our departed brothers and sisters during the past year: May the merciful God give them eternal rest, and consolation to their families. **We pray to the Lord.**

† Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to your greatness. Take good care of us, your children. We ask this through Christ our Lord.

## EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

### ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG

**ESKERRIK ASKO, JAUNA** bihotz-bihotzetik; Eskerrik asko Jauna, orain eta beti.

1. Eskerrik asko, Jauna, gudan zaudelako eta zure biziaz bizi garelako.
2. Zure antzera, Jauna, gaitzela ibili zure antzera, Jauna, on eginez beti.

**Thanks so much, Lord, from the bottom of my heart; Thanks now and for evermore.**

1. Thanks, Lord, because you inhabit in us, and because we live out from your very life.
2. That we may live like you, and like you we may go around doing good.

## OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

<p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</b></p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</b></p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</b></p> <p>☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ <b>May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</b></p>
---	---

## OPARIGAIEN GAINEN OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Jauna, zuk ematen diozu sakramentuei beren indarra: egizu, dohain santu hauek hartzeko gai izan dadila gure zerbitzua.</p> <p>Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† O God, who graciously accomplish the effects of your mysteries, grant, we pray, that the deeds by which we serve you may be worthy of these sacred gifts.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

## EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† <b>Jauna zuekin</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Gora bihotzak.</b></p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† <b>Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</b></p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Berak, gure artean jaioaz, gizon-emakume barri egin gaitu; gurutzean hilez, gure bekatuak ezereztu ditu; hilen artetik biztuz, betiko bizia eman digu, eta Zugana igoaz, Aita guztiz santu, zeruko ateak zabaldu dizkigu.</p> <p>Horregatik, aingeru ta santu guztiekin batean, beti ta beti abesten dizugu gorazarre hau:</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ <b>We lift them up to the Lord.</b></p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ <b>It is right and just.</b></p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.</p> <p>For by his birth, he brought renewal to humanity's fallen state, and by his suffering, cancelled out our sins; by his rising from the dead, he has opened the way to eternal life, and by ascending to you, O Father, he has unlocked the gates of heaven.</p> <p>And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:</p>
--	---

☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan!  
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!

☉ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.

## **EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II**

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz + eta odol guretzat egin daitezzen.  
† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN  
GUZTIOK HONTATIK:  
HAU NIRE GORPUTZA DA-ETA,  
ZUENTZAT EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN  
GUZTIOK HONTATIK:  
HAU NIRE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,  
ITUN BERRI ETA BETIKOAREN ODOLA,  
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT  
BEKATUAK BARKATZEKO  
ISURIKO DENA.  
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratzuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT:  
FOR THIS IS MY BODY  
WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU.**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU,  
AND DRINK FROM IT:  
FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD,  
THE BLOOD OF THE NEW A  
ND ETERNAL COVENANT,  
WHICH WILL BE Poured OUT FOR YOU  
AND FOR MANY  
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.  
DO THIS IN MEMORY OF ME.**

† **The mystery of faith:**

☉ We proclaim your Death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.



† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiakin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, bere senar Jose santuarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean goretz zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan

☉ **Amen.**

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with blessed Joseph her spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ **Amen.**

## JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† **Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:**

†☉ Gure Aita, zeruetan zarana: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.

Emaiguzu gaur egun hontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

† **Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela**

☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

†☉ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**

**Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation, but deliver us from evil.**

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.

☉ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

## PAKEAREN OHIKUNEA/RITE OF THE PEACE

<p>† <b>Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</b></p> <p>☉ Amen.</p> <p>† <b>Jaunaren bakea beti zuekin.</b></p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† <b>Emaiozue bakea elkarri.</b></p> <p>☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaioguz bakea.</p> <p>† <b>Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</b></p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ <b>And with your spirit.</b></p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>☉ <b>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</b></p> <p><b>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</b></p> <p><b>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</b></p> <p>† Behold the Lamb of God, behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ <b>Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</b></p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

## JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

<p><b>JESUS MAITEA ZAN</b></p> <p>Jesus amodioz bihotza gaindian Zein miragarri zen azken afarian Guretzat zelarik hiltzerat abian gerokotz ere zen gurekin nahian</p> <p><b>(REF) Adora dezagun menderen mendetan, Jesus Jainko Jauna sakramendu huntan.</b></p> <p>Apostolueri erraiten diote: «Ni gaur saldua naiz, bihar hilen naute. Aitarenganako denbora zait bethe, hona orain zenbat zaituztedan maite.»</p> <p>Ogia harturik erran du Jainkoak:</p>	<p><b>JESUS WAS LOVING</b></p> <p>During Last Super Jesus loved us, He offered himself in bread and wine, He gave himself totally for us to death Cause love had his heart prisoner.</p> <p><b>(REF) Let us always adore Christ the Lord, Who is with us in this sacrament.</b></p> <p>With pain he told his disciples: “today I will be sold, tomorrow will die. My time to the Father is accomplished, Look now how much I love you.”</p> <p>Taking bread said the Lord,</p>
---	--

<p>“Hau da nire Gorputz, zuek jatekoa”.  Orobat harturik ontzian ardoa:  “Hau da nire Odol ixuritzekoa”.</p>	<p>“This is my Body, for you to eat.  Same taking the chalice with wine:  This is my blood, shed for you.”</p>
--	--

### **JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION**

<p>† Eskaini eta hartu dugun opariak eman diezaigula bizia, Jauna: zurekin bat eginik beti maitasunean, fruitu iraunkorrek erakar ditzagun Jesukristo gure Jaunaren bitartez.  ⊙ Amen.</p>	<p>† May this divine sacrifice we have offered and received fill us with life, O Lord, we pray, so that, bound to you in lasting charity, we may bear fruit that lasts forever.  Through Christ our Lord  ⊙ Amen.</p>
--	---

### **BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING**

<p>† <b>Jauna zuekin.</b>  ⊙ Eta zure espirituarekin.  † <b>Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.</b>  ⊙ Amen.  † <b>Zoazte Jaunaren bakean.</b>  ⊙ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you.  ⊙ <b>And with your spirit.</b>  † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.  ⊙ <b>Amen.</b>  † Go forth, the Mass is ended.  ⊙ <b>Thanks be to God.</b></p>
--	---

### **AGUR JESUSEN AMA/HAIL MOTHER OF JESUS**

<p><b>Agur Jesusen Ama</b>  Agur, Jesusen ama,  Birjina maitea,  agur, itxasoko izar  dizdiratzailea.  Agur, zeruko eguzki  pozkidaz betea.  Agur, bekatarien,  kaia ta estalpea.  Agur, bekatarien,  kaia ta estalpea.</p> <p>Baina Zugandik alde,  bihotzak ezin du,  Zuregana dioa,  Zugan bizi nahi du.  Birjin berdingabea,  onetsi nazazu:  Agur, Ama nerea,</p>	<p><b>Hail, Mother of Jesus</b>  Hail, Mother of Jesus,  Dear Virgin,  Hail, twinkling  Star of the Sea.  Hail Joyful  Sun of Heaven.  Hail, haven, and porch  of sinners.  Hail, haven, and porch  of sinners.</p> <p>From Thee far away,  our heart cannot stand,  It (our hearts) goes toward Thee.  We want to live with You.  Incomparable Virgin,  Bless me;  Hail, my mother,</p>
--	--

Agur, agur, agur.  
Agur, Ama nerea,  
Agur, agur, agur.

Hail, Hail, Hail.  
Hail, my mother,  
Hail, Hail, Hail..

# Goza besta! Enjoy the Picnic!



*Besta Ederra Comdale Euskaldunei  
Happy Picnic*

**DENISE CHRISTINE BOWMAN FINLEY ARRIAGA 1963-2020**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**JOSE MANUEL EREZUMA MARURI 1940-2020**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**KEVIN ZATICA 1948 - 2019**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**JOSE MARIA (JOE) ARTLACH 1944 - 2019**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***



**WENEDA "WENDY" JOYCE LANDA 1936-2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**FRANCISCA HORMAECHEA LEJARDI 1927-2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**CECIL JAYO 1925-2021**



***Goian Rego/May He Rest in Peace***

**BENEDICTO GOITLANDIA 1934-2021**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**ANTONE BICANDI 1946-2020**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**IRENE FLORENCE LANG CHADEZ UBERUAGA 1926-2020**




***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**RUTH BICANDI 1955 – 2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

## **JUAN LUIS ARGOITIA 1948 – 2020**



At the age of 17, he left his family home in Ziortza, Viscaya, to work in the mountains of Idaho as a shepherd. After 3 years began work as a truck driver and construction worker before taking a job at the Jim Bridger Powerplant near Rock Springs, Wyoming. Juan lives on in his family through his wife, Diane, and their daughter Jen (Andrew); his first wife Stephanie and their son, Jonathan, and daughter, Jennifer (Ralph); his grand-daughter, Amaya; brothers Jose (Begona) and Eleuterio; sisters Mari (Pedro) Aburruza and Josefina (Juan Jose) Lorente

***Goian Begol/May He Rest in Peace***



## **MARY GALLEGOS ARCHIBEQUE 1935-2021**



Passed away peacefully on January 1, 2021 due to a long illness and COVID- 19. She was born March 17, 1935 in Cebolla, New Mexico to Jose Eulojio Gallegos and Soraida Montano Gallegos. She married Jose Victor Archibeque on April 9, 1951 in Mancos, Colorado who proceeded her in death on April 1, 1999. Children, son, Richard (Kathy) Archibeque; daughter, Jo Landa (Dennis) Vallejo; son, Phil (Jennifer) Archibeque; daughter, Brenda (Leo) Salazar; daughter, LuWanna (Trent) Fitzgerald; son, Pat (Reba) Archibeque. Twenty seven grandchildren; forty three great grandchildren and six great, great grandchildren. All of these she loved and touched dearly.

***Goian Rego/May She Rest in Peace***

## **MARTIN BENGOCHEA: 1940-2020**

He was born in Beinza-Lanbayten, Spain to Fermin and Joaqvina Bengoechea on Oct. 27, 1940. Martin grew up in Spain but started his American adventure landing in Seattle, Washington on June 15, 1959. He came to America with Modesto Mendicoa to work for JR Broadbent's sheep operation.

## **LUIS GUERRICABEITIA**

(was a resident of Iruzubieta but brother to one of our members, Javier Guerricabeitia and also attended club events when he was here visiting).

## **HELEN HARRIS**

(Grandmother of NiCassia Gabiola Oman-member of our club)



***Goian Beude/May They Rest in Peace***

## URTEKO HAMAHIRUGARREN IGANDEA B

### Lehen irakurgaia

*(Herioa ez du Jainkoak egin)*

### Zuhurtzia liburutik 1, 13-15; 2, 23-24

**13** Jainkoak ez du herioa egin, ez du atsegin bizidunak hil daitezen. **14** Gauza guziak irauteko kreatu ditu; munduko izakiak osasungarri dira, ez dute beren baitan pozoin hilgarririk, eta ez da herioa nagusi lurraren gainean. **15** Ezin hila baita zuzentasuna. **2,23** Jainkoak gizakia ez-hilkor izaiteko kreatu du, eta bere izaitearen idurira egin du. **24** Bainan debruaren bekaizkeriaz sartu da herioa munduan, eta harenak direnek jasanen dute.

**Jaunak errana!**

**Eskerrak zuri Jauna.**

### Salmoa 29

**Leloa: Jaunari kantu: zerutik gaitu eskuz hartu.**

Zure alderat, nere Jainkoa, nere Jauna,  
Egin dut oihu, eta zuk eman osasuna.  
Atera duzu nere arima ifernutik,  
Zaindua nauzu hil-ziloraino lerratzetik.

Jainko Jaunari haren gizonak has kantari:  
Eman gogotik eskerrak haren izenari.  
Haren hasarrek apur bat baizik ez diraute;  
Bizi guzian gu maitez harek begitarte.

Nuen dolua egin dautazu dantza jauzi,  
Kapa kendurik betiko bozez nauzu jantzi.  
Zor dautzu, Jauna, nere arimak soinu kantu;  
Nahi zaitut zu beti ta beti goraiatu.

### Bigarren irakurgaia

*(Kristo bezala, izan gaiten eskuzabal)*

### Jondoni Paulok Korintiarreri 2a: 8, 7.9; 13-15

Haurrideak,

**7** denetarik ausarki ukan duzue: fedea, mintzatzeko dohaina, jakintza, kartsutasuna eta zuenganako nere maitasuna; nasaia izan bedi ere zuen eskuzabaltasuna. **9** Badakizue Jesu Kristo gure Jauna zein eskuzabala den: aberats zelarrik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu izaitiaz zuek aberats egiteko. **13** Ez duzue beharrean erortzerik, besteen soleitzeko, guzieren arteko berdintasuna dut bilatzen. **14** Aldi huntan, zuen soberakinak heien eskasia

beteko du, egun batez heien soberakinak zuen eskasia bete dezan; **15** hola berdintasuna izanen da, Liburu Sainduak manaz dion bezala: Ainitz bildu zuenak ez zuen sobera, eta guti bildu zuenak ez zuen eskas..

**Jaunak errana!**

**Eskerrak zuri Jauna.**

**Ebanjelioa**

**Alleluia, alleluia**

Jesu Kristo gure Salbatzaileak ezeztatu du herioa, Berri Onaren bidez dirdirarazi bizia.

**Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Marken liburutik 5, 21-43**

**21** Jesus itsasoaz bestalderat untziz itzuli zenean, jendalde handia bildu zitzaion. Bera itsas ondoan zagon. **22** Heldu da zinagogako buruzagietarik bat, Jairo deitua. Jesus ikustean, haren oinetarat erori, eta otoizka eskatzen zion : **23** “Alaba ttikia hilzorian dut. Zato eskuak haren gainean ezartzera, senda dadin eta bizi.” **24** Jesus harekin joan zen; jendalde handia ondotik zoakion, alde guzietarik tinkatzen zuela. **25** Bazen han emazte bat hamabi urte hartan odol-galtzeak zituena. **26** Mediku askorenganik zernahi jasana zen, zituen guziak xahaturik, batere hobekitu gabea; Izaitekotz gaizkiago baizik ez zoan. **27** Jesusen berri entzun eta, jende artean gibeletik joan, eta soinekoa hunkitu zion, bere baitan egiten baitzuen: **28** “Soinekoa bederen hunkitzen badiot, sendatuko naiz.” **29** Berehala odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. **30** Ordu berean, Jesus ohartu zen halako indar bat atera zitzaiola, eta jendartearen itzulirik, galdatu zuen: “Nork hunkitu dauzkit soinekoak?” **31** Dizipuluek erran zioten: “Hainbeste jendek hertsatzen zaituela ikusten, eta nork hunkitu zaituen galdatzen duzu?” **32** Bainan Jesus ingururat beha zabilan, hori nork egin zion ikusteko. **33** Orduan emazteak, beldurrez ikaran, baitzakien zer gertatu zitzaion, oinetarat erori eta egia osoa aitortu zion. **34** Bainan Jesusek erran zion : “Ene alaba, zure fedeak salbatu zaitu. Zoazi bakean, eta sendatua bekizu gaitza.” **35** Oraino mintzo zela, zinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, erranez: “Hil zaitzu alaba. Zertako eman neke gehiago Irakasle Jaunari?” **36** Bainan, Jesusek hitz horiek entzunik, zinagogako buruzagiari erran zion: “Ez izan beldurrik; zuk sinets bakarrik!” **37** Nehor ez zuen berekin joaitera utzi, Petri, Jakobe, eta hunen anaia Joani baizik. **38** Zinagogako buruzagiaren etxerat heltzean, Jesusek hango nahasmendua ikusten du, jendea nigarrez eta garrasiaka. **39** Sartu eta erraiten diote: “Zergatik holako nahasmendua eta nigarrak? Nexka ez da hila, lo dago.” **40** Heiek irri egiten zioten. **41** Bainan Jesusek guziak kanpo ezartzen ditu, eta hartzen ditu haurraren aitamak eta berekin zituenak; gero nexka zagon tokirat sartzan da. Haurra eskutik hartu eta erraiten dio: “Talitha kum “ erran nahi baita: “Nexka, nik diozut: Jeiki zaite!” **42** Berehala xutitu zen nexka eta ibiltzen hasi; bazituen hamabi urte. Guziak ezin gehiago harriturik gelditu ziren. **43** Jesusek zorrozki manatu zioten nehork ez zezan jakin; eta nexkari jatera emaiteko erran zioten.

**Jaunak errana!**

**Eskerrak zuri Jauna.**